



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza. Tfonoa.: 313030 IGELDO

ASPALDIKO!!

Bai horixe, aspaldiko! Zenbat da azken ORRI INFORMATIBOA irakurri zenuela, urte bete? Bi urte? Bada, hementxe gaituzu berriz, Igeldon gertatzen denaren berri zuri emateko prest. Berriturik eta berriz beterik gatoz. Berriturik, Orri Informatibo honen itxura pixka bat aldatu egin delako, eta zure parte hartzea inoiz baino gehiago bultzatuko dugulako. Berriz beterik, argitaratu gabe daraman denbora luzean gauza pila gertatu delako. Ezingo ditugu guztiak aipatu, baina ahaleginak egingo ditugu gehienak azaltzen. Gogoratu Orri Informatiboaren helburua: HERRITARRAK HERRIAN GERTATZEN DENAZ INFORMATZEA.

Gaur esku artean duzun ORRI INFORMATIBOA Herri Kontseiluak egin dituen bileretan jasotzen diren aktetan dago oinarrিতa nagusiki; hori izan da hilabete honetako ORRI INFORMATIBOaren informazio-iturri nagusia. Aurrerakoetan horrela izaten jarraituko du, akta horietan oinarrিতuko gara informazioa eskuratzeko, baina zuk, Igeldoko herritar gisa, Igeldon gertatzen den zerbaiten berri eman nahi badiguzu Itsas Aurreko buzoian utzi ORRI

INFORMATIBOARETZAT dela zehaztuta, eta kito. Ale honetan azaltzen den hainbat kontu modu horretan jasotakoa da; ahoz esandakoen gainetik, idatziz jasotakoak hobesten ditugu.



Eta nahikoa *txapa* sartu dugunez dagoeneko, has gaitezen benetan informatzen. A, baina gauzatxo bat ahaztu baino lehen: bukaeran joko bat ipini dugu. Galdera bat da. Erantzunak Itsas Aurreko buzoian utzi, eta zuzen dauden erantzunen artean opari ederra egingo dugu. Oparia zein den ez dugu orain esango, sorpresa izango baita. Hala ere, aurreratuko dizuegu, Igeldon sortutako zerbait izango dela, hemen egindakoa. Eta oso polita dela ere esango dugu, mantxo-mantxo egin behar izaten den gauza horietako bat da-eta, ia perfektua, esango genuke. Zer, badakizue zer den? Ez ezta? Bada, galdera erantzun, asmatu eta oparia eskuratu. Sinplea.

SINDIKATOA

Sindikatoa. Horrela esanda guztiok dakizue etxe bati buruz ari garela. Igeldora etorri berri zaretenoi esan, Sindikatoa Herria baino lehen dagoen lehen autobus parada horretan dagoen utzitako etxea dela; duela urte batzuk arte baserritarrei zerbitzuak eskaintzeko gunea zen.

Hutsik dago gaur egun eraikuntza, eta Herri Kontseilua aspaldi dabil etxearekin zerbait egin nahian. Zeraingo proiektuaren buru izanik, Jakoba Rekondorekin jarri zen harremanetan. Oraindik ez dago proiektu definiturik, baina Herri Kontseilua lanean ari da.



Aldaketarik dagoenean emango dugu horren berri.

HERRI-BIDEAK

Etumezabaletik igarotzen den herri bidea konpontzeko eskatu zuten bertakoek, kotxez ezin baitaitezke etxeraino joan. Herri Kontseiluak ongi deritzo Etumezabaleraino bidea irekitzeari, baserri isolatuta ez gelditzeko. Baina bidea zabala ez izatea eskatuko du udaletxean, errepide batek sortzen dituen inpaktuak ahalik eta txikienak izan daitezen. Etumezabaletik Etumeko bidera joango da bide berria, Irizar etxearen atzetik. Bestalde, Agiti 13.ean lur-jauzia egon da, eta ikuilura ezin sartu geratu dira. Kaltetuak Nekazaritza departamentuan laguntza eskatu du.

SALAKETAK/ESKAERAK

Agiti 3.ean egiten ari direnak salatu egin dira. Baimenik ez zutenez gelditzeko agindua eman zuten Donostiako Udaletxeak. Hala ere, lanean jarraitu dute eta berriz salatu da. Halaber, salatu egin dira Lapabiden eta Kuarteletan egiten ari diren lanak. Orain arte eman diren baimenen jarraipena egiten den edo ez jakin nahi du ere Herri Kontseiluak (nekazal iharduerarik duten), baina, galdetuta, ez du oraindik erantzunik jaso.

Bestalde, Borda Berri parean lur-azterketa bat egiteko eskatu zaio Donostiako Udaletxeari. Bertan lur-jauzi txiki bat dago eta arriskutsua den jakin nahi da. Erantzunik daukagunean kontatuko.

SUKALDEKO GILTZA

Dakizuenez, Itsas Aurreko beheko solairuan sukalde bat dago.

Ez zenekitenek orain badakizue (ikusten, zein erabilgarria den ORRI INFORMATIBOA?). Bada, sukalde horretako arduraduna Jabier Iraola da, Herri Kontseiluko kidea.



Sukaldea erabiltzeko eskubidea guztiok dugu, baina ordena ipini behar da, bestela kaosa litzateke. Beraz, erabili nahi duenak Jabierri eskatu beharko dizkio giltzak (943 313030), eta zeinen ardurapean geratuko den zehaztu beharko dio.

Esan beharrik ez dago baina esan egingo dugu: sukaldea txukun eta garbi utzi behar da erabili eta gero, aurkitu duena baino txukunagoa eta garbiagoa, ahal bada.

Bodegan hezetasuna kentzeko aparailu bat erosi da.

LAPA SARIA

Apirilaren 29ean hasita eta hiru larumbateetan jarraian Igeldoko 29. Lapa Saria jokatu da Itsas Aurre kulturetxean.



MUS TXAPELKETAK IGELDON
XXIX - LAPA SARIA

Txapelketa azkar aldiko egunak:
2.006 ko Apirilak 29 eta Maiatzak 6 eta 13

LEKUA : ITSAS - AURREN

EGUN BAKOITZEKO SARIAK	SAILKETA BAKOITZEKO SARIAK
1 ^{RO} 140 euro	1 ^{RO} Urrezko Lapak eta Txapelak
2 ^{EN} 120 euro	2 ^{EN} Bi Trofeo
3 ^{EN} 100 euro	3 ^{EN} Bi Trofeo
4 ^{EN} 80 euro	4 ^{EN} Bi Trofeo

Izen ematea 21:30 etatik 22:15 etara izango da.
HASTEKO ORDUA 22:15 etan

OHARRA - Eztatidea batean, antolatzaileen esku geldituko da azken hitza.
Lau errege eta hiru usteletara izango dira txapelketak.

MINTZA LAGUN

Talde honen berri iritsi zaigu Orri Informatibora. Euskaldun berria zarela eta euskeraz hitz egin nahi duzula? Hortxe duzu, bada, aukera, Igeldon bertan. Astean behin biltzen dira ordu batez. Egun, bost pertsonak osatzen dute taldea: lau esuskaldun berrik eta euskaldun zahar batek. Zuk ere parte hartu nahi baduzu deitu 943313030era, edota utzi izena eta telefono-zenbakia Itsas Aurre posta-ontzian.

“Mingaina askatu, eta sartu Mintzalagunean”.

KZ GUNEA

Konturatuko zineten, Igeldon KZ GUNE bat ipini dute. Zer da hori? Gela bat ordenadoreekin. Norentzat? Edozeinentzat. Zertarako? Interneten nabigatzeko, horretarako ikastaro batzuk antolatzen dira. Eusko Jaurlaritzak martxan ipini zuen kanpaina bat duela urte batzuk, eta haren helburua zen jende guztiari Interneten zegoen informazioa eskura ipintzea. Horretarako herrietan KZ GUNEAK ireki zituen.

Orain, Behemendiren (landa-eremuen garapena helburu duen taldea, Foru Aldundiaren eta Donostiako udaletxearen artean sortua) bitartez, diru-laguntza bat lortu da eta horri esker jarri da KZ GUNEA.

KZgunearen ordutegia:

Udaletxeak erabakitzen duen ordutegia

- Astelehena, asteartea eta osteguna: 16:00-20:00
- Asteazkena eta ostirala: 16:00-18:00

Tutorearen bisitaldiak maiatzan:

Hamabostero, asteazkenetan 16:00-20:00etara.

Maiatzak 10 16:00-20:00

Maiatzak 24 16:00-20:00

Kontaktatzeko telefonoak:

Tutorea (Jaione): 943 281521 (9:00-13:00; 16:00-20:00)


Baina ordenadoreak daudenez, orain ez da pianorik jotzen; liburutegia ere ez da erabiltzen, gela hori giltzaz itxita egoten delako (pianoa zegoen eta liburutegia zen gelan jarri dituzte ordenadoreak); eta bilera-

gela bat gutxiago dugu ordenadoreek mahairik gabe utzi digutelako.

Gainera, gela zeinek irekiko duen eta itxiko duen ez dago oso argi. Poliki-poliki konpontzen joan beharko diren gauzak dira hauek, eta guk jakin bezain laster zuei kontatuko dizkizuegu.

Bestalde, gorago aipatutako diru-laguntza hori medio, Kultur Etxerako pantaila bat eta kañoia erosi dira. Aurrerago gauza gehiago eskuratzeko asmoa dago.

MAIATZAKO IKASTAROAK:



MAIATZAKO MINTEGIAK

- EUSKAL HERRIKO NEKAZAL MUNDUA
Iraupena: 2 ordu.
(Ezagutu ezazu Euskal Herriko baserri-bizimodua, bere erakunde, produktu eta ustiapenen bidez. Ezagutu itzazu nekazaritza eta abeltzaintza; aurki itzazu azokarik garrantzitsuenak eta oinarriko arloa ondo ezagutzeko beharrezko diren hainbat helbide elektronikoa).
Eguna: 2006/05/10
Ordutegia: 17:00-19:00
- EUSKARA ZIBERESPAZIOAN
Iraupena: 2 ordu.
(Bila itzazu euskarazko hitzgiak, liburuak,... interneten).
Eguna: 2006/05/24
Ordutegia: 17:00-19:00

Mintegiak egiteko 943 28 15 21 (Jaione) telefonora deitu

IA ZEINEK ASMATU

Hona ba, Igeldoko arte-lana irabazteko aukera emango dizun galdera:

ZEIN URTETAN AZALTZEN DA IDATZITA LEHENENGO ALDIZ IGELDORI BURUZKO ZERBAIT?

KANPOSANTUA

Lasaiak izaten omen dira kanposantuak. Aztoratuta dabil, ordea, Igeldokoa, Donostiak udal araudi berria kaleratu zuenetik. 1953an akordio bat sinatu zuten Igeldok eta Donostiak Kanposantuaren gainekoa, eta berriki atera den udal araudi horrek ez du akordio hura errespetatzen. Herri Batzarra konbokatuta, arazoa mahai gainean ipini zen Igeldon, eta han bildu ziren herritarrek (ez gutxi gainera!) zera erabaki zuten: Kanposantua kudeatzeko proposamen bat jorratu beharra dago, eta gero Donostiako Udaletxeari aurkeztu; proposamen hori egiteko pertsona bat bilatu behar da, hori egiteko gai den norbait. Donostiak, bere aldetik, Igeldotik jaso dituen kexak aztertzen ari da, eta ondoren proposamen bat

plazaratuko du hark ere. Jaso berri dugun berria: udaletxeak 5 urteko luzapena eman du,

hau da, ez da oraingoz ezer ordaindu beharko, orain arte bezala jarraituko da. Hemendik 5 urtera helduko zaio berriz ere gaiari, eta erabakiren bat hartuko da orduan.



OSPAKIZUNAK

Aurten, oraingoz, udara baino lehen aurre ikusitako ospakizunak hauek dira (beherago azaltzen dira xehetasunak):


Maiatzak 7: Adarra mendiari itzulia emango diote lagun artean goiz pasa polita egin nahi dutenek. 6 kilometroko bueltaxka da (511 metroko desnibela), 3 ordutan egitekoa.

Irteera: goizeko 8:30tan Igeldoko plazan.

Izena emateko: Itxas Aurreko buzoian ala telefonora deituta (943 313030)

Bi irteera hauetara joan nahi duten haurrek gurasoekin lagunduta joan beharko dute.

Maiatzak 15: San Isidro eguna
(ikus atxikia doakizun orria)



Maiatzak 27:

21:45 Literaturaren sari-banaketa.
Ondoren “Zai, beti zai” antzerki-lanaren emanaldia. Oihulari Clown taldeak eskainiko duen antzezlan da Gazte-Lokalean.

Ekainak 4:

Artikutzari emango diote buelta ibilbide zoragarriaz gozatu nahi dutenek. 4 ordutan egiten den 10 kilometroko itzulia da (325 m-ko desnibela).

Irteera: goizeko 8:30tan Igeldoko plazan.

Izena emateko: Itxas Aurreko buzoian ala telefonora deituta (943 313030)

Ekainak 11 Eskola Txikien Festa; eta horren atarian

Ekainaren 9an antzerkia .Teresa Lopez de Munain-ek “Ugaztun Baten Antxiak” monologoa eskainiko du 22:00tan Gazte-Lokalean.

Ekainaren 10ean 19:30ean ipuin musikatuak. Zarauztarrak izango dira Gazte Lokalean “Kantu kontari” emanaldi berezia aurkezten.

Eguna borobiltzeko,

22:00tan

musika emanaldia. Dominika eta Niko Etxart & Robert Larrandaburu izango ditugu kantari herriko plazan.

ESKOLA TXIKIETAKO JAIA

EKAINAK 11a.

EGITARAUUA:

10,00	Harrera instituzionala
10,30-13,00	Jokoak Puzgarriak
13,00	Buruhaundiak Trikipoteoa Zezen suskoa
14,00	Bazkaria
16,00	Pirritx eta Porrotx pailasoak Tailerrak
17,00	Lekukoa hurrengo urteko eskola-arduradunari, Zubietari. Omenaldia.
18,00	Erromeria, TRIKI TA Kerenn eskutik

Eskola txikietan ikasten duten 1000 haurrek ez aspertzeko moduko egitaraua prestatu dute! Herria umez (gutxienez 1000 horiek!), jostatzeko lekuz (frontoia + 3 karpa itsas aurre azpian) eta janariz (bazkaria eskola txikiko partaideentzat frontoian + taberna Itsas Aurren + txahala + pintxoak) beteko zaigu egun honetan; baita kotxez ere (eguzkia bada belardietan, euria bada Akelarren, Camping-ean eta Etxe Nagusin).

Eta hori guztia aurrera eraman ahal izateko, eta eguna borobila izan dadin, herritar guztion laguntza beharko dute. 100 pertsonetik gora beharko dutela kalkulatu dute, beraz, badakizu ANIMU ZAITEZ (667710168ra deitu, Itziar).

Eta gogoratu: egun honetan ez da kotxerik ibiliko herriaren erdian, eta bezperatik bertan kotxerik ez baduzuze aparkatzen, hobeto.



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:

